

GOBERNU BATZARRA

2007.02. 26

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila zazpiko otsailaren 26an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 8.00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrenda aztertze eta erabakiak hartzeko:
Jokin Bildarratz Sorron	
Zinegotziak:	
Jokin Azkue Arrastoa	
Onintza Lasa Arteaga	
Jose M. Vieites Gomez	1.-Aurreko akta onartzea.
Idazkaria:	2.-Dar cuenta de la Sentencia sobre el Procedimiento Administrativo 330/04.
Jose Luis Unanue Ugalde	3.-Ibilgailuen zerga: salbuespen eskaerak.
	4.-Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzak. Behin behineko onartu eta baztertuen zerrendak onartzea.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2007ko otsailaren 12an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Dar cuenta de la Sentencia sobre el Procedimiento Administrativo 330/04.

La Junta queda enterada de la Sentencia emitida por el Contencioso Administrativo nº 1 en el Procedimiento Ordinario 330/04, la cual podemos resumir en los siguientes puntos:

PRIMERO- Se señala que se han de tener en cuenta las instalaciones del Hotel Oria a la hora de realizar el cómputo de distancias para la apertura de la cervecería en la calle Oria nº 12.

SEGUNDO.- Deniega la petición de indemnización de daños y perjuicios solicitada por el recurrente.

CUARTO.- Dictamina que el Ayuntamiento debe tramitar la denuncia presentada contra las instalaciones hoteleras ubicadas en el Hotel Oria, sin perjuicio de que el mismo conduzca a su definitiva legalización.

3.- Ibilgailuen zerga: salbuespen eskaerak.

Jasotako eskarak ikusita, eta aintzat hartuta Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko zergaren, uztailaren 5eko, 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Ondorengo zerrendako ezinduen izenean matrikulatutako ibilgailuei, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena onartzea:

Zka.	TITULARRA	MATRIKULA
1	A.B. J.M.	SS-0442-BG
2	B.A.I.	2219 DZW
3	B.Z.G.	6057 CRV
4	E.G.P.	SS-5719 BJ
5	L.A.P.	SS-2867 AS
6	O.E.M.A.	SS-1297 AP
7	O.L.V.J.	1628 FBS
8	S.F.M.	SS-2750 AN
9	S.L.R.	1083 CWF
10	T.F.J.I.	8368 CVS

BIGARRENA.- 2008.urtetik aurrera Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergatik salbuestea honoko hauei:

1	G.M.P.M.	SS-5626 BG
2	I.S.J.	3790 FKN
3	L.A.J.M.	SS-3013 BJ

A la vista de las solicitudes recibidas y teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.-Conceder la exención del Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica a los vehículos matriculados a nombre de minusválidos que se relacionan a continuación.

Nº.	TITULAR	MATRICULA
1	A.B.J.M.	SS-0442-BG
2	B.A.I.	2219 DZW
3	B.Z.G.	6057 CRV
4	E.G.P.	SS- 5719 BJ
5	L.A.P.	SS- 2867 AS
6	O.E.M.A.	SS- 1297 AP
7	O.L.V.J.	1628 FBS
8	S.F.M.	SS-2750 AN
9	S.L.R.	1083 CWF
10	T.F.J.I.	8368 CVS

SEGUNDO.- Conceder la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica a partir del año 2008 a los siguientes vehículos:

1	G.M.P.M.	SS-5626 BG
2	I.S.J.	3790 FKN
3	L.A.J.M.	SS-3013 BJ

4 M.V.M. SS-8132 BB
5 O.G.J.J. 6502 FKM
6 U.C.M.E. SS-2168 AF

HIRUGARREN.- Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga-salbuespena ez ematea behar diren baldintzak Ordenantzetan agertzen diren moduan betetzen ez dituztelako:

1 B.O.A. 6185 CJH
2 C.M.F. 3285 FHG

LAUGARREN.- Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzailetzari ematea.

4 M.V.M. SS-8132 BB
5 O.G.J.J. 6502 FKM
6 U.C.M.E. SS-2168 AF

TERCERO.- No conceder la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica por no reunir los requisitos exigidos en la Ordenanza correspondiente, a los siguientes vehículos:

1 B.O.A. 6185 CJH
2 C.M.F. 3285 FHG

CUARTO.-Comunicar el presente acuerdo a los interesados y a Intervención.

4.-Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzak. Behin behineko onartu eta baztertuen zerrendak onartzea.

Onartutako oinarrien arabera, Voith-Gorostidi eremuko Toki-babeseko etxebizitzaren eskatzaileen onartu eta baztertuen zerrendak proposatu ditu Epaimahaiak.

Proposamen horren arabera, Gobernu batzarrak

ERABAKI DU

LEHENA.- Voith-Gorostidi eremuko Toki babeseko etxebizitzaren eskatzaileen onartu eta baztertuen zerrendak behin-behingo onartzea.

BIGARREN.- Eskatzaile bakoitzari onartua edo baztertua izan den jakinaraztea.

HIRUGARREN.- Erabakiaren iragarkia Berria eta Diario Vasco egunkarietan, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzea.

LAUGARREN.- Behin-behineko zerrendak informazio publikoan jarrita edukitzea udaletxeko iragarki-taulan eta web orrian, 15 lanegunetako epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, interesatuek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:

1. Zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak 1. faktura-zerrenda, 83.242,11 €-koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Aipatutako 1. faktura-zerrenda onartzea.

BIGARREN.- Onarpenaren berri Kontuhartzaitzari ematea.

Ereite.-

Aurreko bileran Ereiteri San Esteban auzoan lokal bat utzi zitzaion asteburuetarako, baina ordutegiari buruz ez dago akordiorik.

Beraz, Gobernu batzarrak eskatu dio osasun eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeari proposamena egin dezala ordutegiari buruz, kontuan izanik eraikuntza horretarako hirugarren solairuan famili bat bizi dela.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10etan.

ALKATEA

IDAZKARIA